

MANIFESTUA



EKAINA LIPEDEMAREN HILABETEA DA MUNDU OSOAN

LIPEDEMA OMEk aitortutako gaixotasun bat¹ da. Patologia hau erabat ezezaguna da, eta ez da arraroa. Infradiagnostikaturik dago eta osasun-tratamenduan defizitak ditu. Harrigarria bada ere, munduko emakumeen % 16ri eragiten die, baita gizonei ere, guztira, 616.000.000 pertsona ingururi.

Ez da haren jatorria ezagutzen, kronikoa da eta ez du sendabiderik. Sintoma nagusia besoak eta hankak handitzea da. Osagai hormonalak du eta obesitatearekin nahasten da, baina ez die dietei edo ariketari erantzuten. Min etengabeak eta ezgaitzaileak eragiten dizkigu, ile-hodiak estutzen ditu, eta kalte linfatikoak eragiten ditu. Kasu aurreratuetan, eragin larria du mugikortasunean, eta ibiltzea eta geure kabuz baliatzea eragozten digu.

Ikerketa falta dela eta, tratamendu kontserbatzaile garestiak eta kirurgia klinika pribatuetan baino ez ditugu.

Patologia ikusezina da gure osasun-sistemarentzat. Zaila da diagnostiko medikoa izatea. Diagnostikorik gabe ez dugu tratamendu kontserbadorerik lortzen eta larriki egiten dugu okerrera. Diagnostikoa eginda ere, zailtasun handiak ditugu Osakidetzan tratamendua lortzeko. Mina gutxitzeko eta gaixotasunak okerrera egiten saihesteko, azkenean gure poltsikotik ordaintzen ditugu tratamenduak. Badakigu beste autonomia erkidego batzuetan Euskadin baino gehiago ari direla aurrera egiten.

EAEn bakarrik, kaltetuak 182.000 lagun inguru izan daitezke. Gehienek ez dakite gaixotasun hori dutenik ere. Hala ere, ez gara ikusezinak. Klean edo hondartzan ikusi gaituzu. Gorputzaren aldean neurritz kanpoko hankak eta/edo besoak ditugu, gerri estua... Jendeak ez daki lipedema dela, gizentasuna, obesitatea, alferkeria, borondate-indarrik eza deitzen dio, edo, zuzenean, seinatu, barre egin eta iseka egiten dute: "elefante-hankak".

Eragindako Pertsonen Euskadiko Elkartetik honako hau adierazi eta aldarrikatu nahi dugu:

- 1.- Osasun Publikoan/Osakidetzan kalitatezko laguntza jasotzeko eskubidea dugu, OMEk aitortutako gaixotasun kroniko sendaezin bat baitugu, osasun-arazo larriak eragiten dizkiguna.
- 2.- Adierazten dugu beharrezkoa dela lurralde-kohesioa izatea Osasun Publikoaren bidezko aurkezpenei eta tratamenduari dagokienez; bizilekua ezin da izan diskriminatzeko edo

¹ ICD-11 katalogoa (Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena), "Larruazalpeko koipearen alterazio ez-inflamatorioak" EF02.2 kodearen pean (OME, 2018ko maiatza)

bazterkeria pairatzeko arrazoi bat, diagnostiko-metodoak jasotzeko orduan ezta kalitatezko tratamenduen erabileran edo berriki agertu diren horietan ere.

3.- Premiazkoa eta beharrezkoa da Patologia Linfatikoen eta Lipedemaren Unitateak ezartzea ospitaleetan, diziplina anitzeko lantaldeek osaturik, kalitatezko osasun-arreta emateko eta osasun publikoaren alderdi mediko eta psikosozial guztietan arreta integrala eskaintzeko.

Prebentzioak eta tratamenduak funts ekonomiko asko aurreztuko lizkioke sistema publikoari. Patologia honen tratamenduaren ezak berekin dakartza ezintasun-kasuak, azken batean horren kostua gaitxotasunaren diagnostikoa eta eusteko baliabideen gastua baino handiagoa da.

4.- Garrantzitsua iruditzen zaigu jakitea zein den Lipedemaren prebalentzia eta eragina, hartara, gaixotasuna tratatzeko beharrezkoak diren baliabideak ezarri ahalko lirateke. Patologia linfatikoak eta lipedema dituzten pertsonen osasun-arazoei aurre egiteko azterlan epidemiologikoak bultzatu behar dira.

5.- Patologia linfatikoari eta lipedemari buruzko ikerketa sustatu eta babestu behar da osasun plan nazionalen barruan.

6.- Eskatzen dugu berrikustea gaixoen osasuna arriskuan jartzen edo okertzen duten egungo praktikak. Adibidez, botika jakin batzuk bereizi gabe agintzea edo presoterapia-sistemak behar ez bezala erabiltzea, egungo ebidentzia zientifikoak ez baitira eztaba daezinak.

7.-Gure ustez, lipedema mota ez da baztertzeko arrazoia izan behar, ezta haren tratamendua ere, izan goiko zein beheko gorputz-adarretan edo eragindako beste edozein eremutan, patologia kronikoa da eta.

8.- Lipedema antzemateko diagnostiko goiztiarreko programak ezartzea eskatzen dugu, baita kirurgiaren osteko prebentziokoak ere.

9.- Osasun zientzien fakultateetan patologia linfatikoei eta lipedemari buruzko prestakuntza handiagoa behar da.

10.- Osasun sistema publikoak paziente bakoitzarentzat egokiena den mantentze-terapia finantzatzea eskatzen dugu, gaur egun paziente baina terapia hori ordaintzen ari baita.

11.- Gure ustez beharrezkoa da osasun sailtako prestazioen zorroan sartzea paziente bakoitzaren beharretara egokitutako arropa ortopedikoak.

12.- Lipedemak lanerako ezintasunaren eta/edo desgaitasun-mailaren balorazioak egiterakoan sortzen dituen mugak kontuan hartzeko eskatzen dugu, nazioarteko irizpideekin bat etorritik.

13.- Osasun-erakundeen aurrean baliozko organo solaskidea izan nahi dugu, pazienteak defendatzeko.



ADELPRISE
ÁLAVA
adelprisevit@gmail.com
Teléfono:600555105



A.G.ADELPRISE
GUIPUZCOA
agadelprise@gmail.com
Teléfono:601982584



BIZADELPRISE
VIZCAYA
biz_adelprise@hotmail.es
Teléfono:60055510